

# KARMEL

VIII<sup>o</sup> GN. URTEA.

BIGARREN ATALA

(LARREA - ZORNOTZA)

## Gora biotzak!

Gizonok, amesti be ba-gara-ta, sarri zuzendu oi doguz goi aldera begiak. Zer ikusten ete? Eguzki ederra, egunez, izpi bigunakax lurra berotu ta alaitzen. Eta gabaz? Giro epel izarratua danean, zenbat űirñir-lari eder, ipurtargi antzera, guztien amand-re Illargia dalarik! Sor ta lor egon oi gara, goiko izakion ederrak birloratuta. Orreik, ostera, banakaren batzuk besterik izan ez; beste asko dira guk ikusi-eziñak. Eta orrein aldean gure lurbira, arto-garaua baizen txiki.

Izar guztiok, len uste zanez, Eguzkia eben ardatz. Newton'ek bestera diño, izar guztiak, txiki ta aundi, alkar erakarritz, alkarri tiraka dabiltzala; guztiak alkarri lotuta, erakarpen-legez eratsita, txit arrigarriro bat eginda. Batak besteari oratu ta eutsirik, dantza ikaragarria darabille; ta zorapenezko birundan jardun arren, oreka be-tan dirau.

Gizon tentel batzuk ba-dira, onen eratsu dabillen mundu au, ala-bearrez sortua dala diñoenak. Baiña ala-bearrak egiña ete ain gauza nastua? Olan ba'litz, indar ori bai jakituna! Ez izan, baiña, orrela; gizonaren jakituri guztiak batuta be, izar batzuen go-raberak aztertu ta bideak jakin-erazteko

gauza izan ez. Ta miloika izarrenak, zelan? Ez, gizontxo; makur egik burua.

Jainko-aztarrena, emen dirdir dagiana. Ederto Dabid'ek: «Jainkoaren dirdaia iragarten dabe zeru-goiak». Nok ukatu itzok? Ezin ezelan be, eurok bait-dira Gizadi osoaren erantzuna.

Zeru-sabai zabal izartua Jainko-ikus-eziña iruditzen dauskun ispillu dozu. Bai ta liburu aundi bat be, ta berton idatzita, eguzki ta izar dirdaitsuz, Aren Izen santua.

Izan da zarata naikoa, azken illabeteotan, izartegia dala-ta. Illargiari, kumerik ekarten ez daulako edo, semetxoak bialdu dautsoez, ta geiago be bialtzeko asmuz dira oraindik. Ortik, zer? Goien jaube gizona? Ba'leiteke. Joan urteotan, egurats edo aideo barri jaritxi dau egazkin (aireplanu) bitartez. Aurrerantzean, Sputnik askoren bidez, izartegiaren jaube be egingo ete? Iñoizkoan, olako txapliu edo bolandera luze baten sartuta, Illargira edo Artizarrera, Marte'ra edo Merkuri'ra, edo beste edozein izarbelerara elduko ete?

Ori lorturik be, gizonak Jainko aurrean burua makurtu bearko beti. Eta orduantxe dogu izan be, Jainko aurrean belauniko, egundokorik aundi, jator ta jakitunen.